



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURA.

2019KO EKAINAREN 15EKO BILERAREN AKTA

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2019.06.15.

Ordua: Goizeko 11:30etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Dabid Iturria Almandoz jn.
Leire Mitxelena Gamio and.
Iñigo Sarrias Zoco jn.
Beñat Mitxelena Damboriena jn.
Imanol Lukanbio Larretxea jn.
Joseba Pikabea Iribarren jn.
Markel Jorajuria Elizondo jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Adineko mahaia eratzea.
- 2.-Udal berriaren eraketa.
- 3.-Alkatearen aukeraketa.

1.-ADINEKO MAHAIA ERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikulua dioenari jarraituz, zinegotzi-egiaztagutunak Idazkaritza Orokorrean jaso ondoren, bertaraturako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek adineko mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Adineko mahaia era honetan osatu da:

- Zinegotzik zaharrena: Iñigo Sarrias Zoco jn.
- Zinegotzik gazteena: Markel Jorajuria Elizondo jn.
- Idazkaria: M. Jose Larraioz Ariztegi.

2.-UDALA ERATZEA.

Adineko mahaiak zinegotzi-egiaztagutunak aztertu ditu, bai eta Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-egiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozela baieztatzeko.

Horren ondotik, zinegotziek Konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute modu honetan, Idazkariak legeak agintzen duen galdera hau egin ondoren:

“Zin edo promes egiten duzue zinegotzi karguaren betebeharrak erregearekiko leialtasunez zintzo beteko duzuela eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duzuela?”

- Dabid Iturria Almandoz jaunak, legeak behartuta, hitz ematen du.
- Leire Mitxelena Gamio andreak, legeak behartuta, hitz ematen du.
- Iñigo Sarrias Zoco jaunak, legeak behartuta, hitz ematen du.
- Beñat Mitxelena Damboriena jaunak, legeak behartuta, hitz ematen du.
- Imanol Lukanbio Larretxea jaunak, legeak behartuta, hitz ematen du.
- Joseba Pikabea Iribarren jaunak, legeak behartuta, hitz ematen du.
- Markel Jorajuria Elizondo jaunak, legeak behartuta, hitz ematen du.

Ondorioz, zinegotzien gehiengo osoa Osoko Bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udala eratutzat jo du.

Hona hemen zinegotzien zerrenda:

- Dabid Iturria Almandoz jn.
- Leire Mitxelena Gamio and.
- Iñigo Sarrias Zoco jn.
- Beñat Mitxelena Damboriena jn.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn.
- Joseba Pikabea Iribarren jn.
- Markel Jorajuria Elizondo jn.

3.-ALKATEAREN AUKERATZEA.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraiturik, adineko mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorazi ditu:

- “Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai.
- Lehen bozketan, gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate.
- Horrela gertatzen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako burua den zinegotzia izango da alkate.
- Gehien bozkatutako zerrenda bat baino gehiago bada, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate.”

Horrela bada, Dabid Iturria Almandoz jauna (EH Bildu) taldearen zerrendaburu izanik, isilpeko bozketari ekin zaio eta lortutako botoak hauek dira:

Dabid Iturria Almandoz jauna: 7 boto.

Bozketaren arabera, DABID ITURRIA ALMANDOZ jauna da alkate.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

Ondoren, Dabid Iturria Almandoz jaunak onartu du alkate izatea. Horrela bada, Udalbatza aurrean duela agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Dabid Iturria Almandoz jaunak hartu du alkate-kargua eta hitz eman du, legeak behartuta, alkate karguaren betebeharrak erregearikiko leialtasunez zintzo beteko duela eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duela .

Jarraian, idazkariak hiru agiri hauek aurkeztu dizkio Udalbatzari, zinegotziek azter ditzaten:

- kutzako kontaketa agiria.
- Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiria.
- Udal-ondarearen inbentarioa.

Azkenik alkateak hitza hartu du eta aipatu egindako taldeak herriaren alde lana egiteko prest eta gogotsu daudela.

Bertzerik gabe, goizeko 12:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Dabid Iturria Almandoz.



